



Berrobiko eskola berria inauguratu dute ofizialki

EKITALDIA ▶ Atzo egin zuten agintariek ohiko zintaren mozketan herritar ugariarekin batera

ALDAKETA ▶ Eraikin berria oso egokia dela eta toki onean dagoela dio Renobales zuzendariak ▶ 6



Eskola berriaren atarian, agintariak eta bertsoak abestu zituzten gazteboak, atzoko ekitaldian. M. SOROA

LEITZA ▶

Plazaola trenaren 93 urteak gogoratuz

1914. urteko urtarrilaren 19an inauguratu zuten ▶ 7

ORENDAIN ▶



N. URBIZU

Kalea baserriaren lehen urteurrena

Jose Antonio Gonzalez bizi da bertan orduetik ▶ 5

ANOETA ▶

Alkartasuna Biltokia, lehiaketa publikora

Eskaintza guztiak aztertuko dituzte ▶ 2

ZIZURKIL ▶

Udalak eta herriko hiru ikastetxeek Eskola Agenda 21 bultzatuko duen hitzarmena sinatu dute

Ikasleek herriaren eta ingurunearen diagnostia egingo dute eta Udalari martxoan aurkeztuko dizkiote ondorioak ▶ 4



Pleno aretoa, atzo. I. GARCIA

ANOETA ▶ GIZARTEA

Lehiaketa publikora atera du Udalak Alkartasuna Biltokia

Aurkezten diren eskaintza guztiak aztertuko dituzte, adinekoen beharrak ondoen betetzen dituen aukeratzeko



Berrogei lagun inguruztako toki dago Alkartasuna Biltokiko jantokian. IMANOL GARCIA

ERREDAKZIOA

Udalak lehiaketa publiko bat plazaratu du San Juan kaleko 6. zenbakiko baxuan kokatzen den Alkartasuna Biltokiaren ustiakuntza nork eramango duen erabakitzeke. Udalak jakitera eman duenez jasotzen dituzten eskaintza guztiak aztertuko dituzte, «adinekoen egoitza honek, gerora ere erabiltzaileen eskaera eta beha-

rrak ahal den hobekien erantzuteko». Egoitzan, egunero, une desberdinetan adineko pertsonak, jubilatuek eta Anoretako bizilagun desberdinak biltzen dira bertako jatetxe-taberna zerbitzua jasoz edota beste anoetarrekin batera aisialdi arteak igarotzeko asmoarekin.

Udalak jubilatuen ustiakuntza prozesua ahalik eta lehen ebatzea nahi du egoitza zerbi-

tzuan berehala sar dadin. Aretoa eta gune guztiak prestatuak eta guztiz atonduak daude. Beraz, irekiera baimena adosten denean, egoitzaren martxan jartzea berehalakoa izan daiteke.

Egoitzaren ezaugarriak

Duela bi urte inauguratu zen Alkartasuna jubilatuen egoitza. Honek ekipamendu eta az-

piegitura modernoa du. Aretoak guztira 200 m²ko azalera du, lau guneetan banatuta: Administrazioa kokatzen den bulego bat; 40 lagun bildu ditzakeen jangela, telebista eta bideoaz hornituriko bilera aretoa, hitzaldi aretoa eta ostalaritza zerbitzua eskaintzen den espazioa; sukaldea eta jatetxe-taberna.

Berritatz jo daitekeen egoitza hau pertsona adindu edo autonomia arazoak ez dituzten pertsonen duten sartzeko zailtasuna eta baita mugikortasun arazoei erantzuna emateko diseinatu dago. Komunak ezintasunen duten pertsonentzat egokitua daude baita egoitzarako sarrera-irteerak ere. Egoitzak berotze eta aire girotu sistema du, sukaldea beharrezkoak diren etxeko tresna elektriko eta tresnaki guztiekin hornitua dago.

Gaur egun egoitza martxan da, baina Udaleko arduradunen esanetan, «zerbitzua eta baliabideak hobetu nahi ditu adinekoen bizi kalitatea hobetearren».

Alkartasuna jubilatuen egoitzak, erabiltzaileei bilera gune bat eskaintzen die, bertan pertsona adinduak bere aisialdi arteak izateko eta baita aukeratzeko, ikastaroetara joan eta mintegietan parte hartzeko. Besteak beste, hitzaldi eta eztabaidetan parte hartuaz. Taberna-jatetxean indarrean dauden prezioak nagusien baliabide ekonomikoetara egokituta daude. Egun, taberna edonorentzako irekia dago, zerbitzua herritar orori eskaintzek diolarik. Hori dela eta, eguneko menuak, plater konbinatuak... zerbitzatzen dituzte bertan.

TOLOSA ▶

'Holiday' eta 'Arthur y los minimois' gaur

Arthur y los minimois filma izango da ikusgai gaur haurerentzako saioan. Emanaldia 17:00etan izango da Leidorren. Beranduago, 19:30ean eta 22:30ean Nancy Meyers-en *Holiday* filma ikusi ahal izango da. Cameron Diaz, Kate Winslet, Jude Law dira komedia erromantikoko protagonistetako batzuk.

TOLOSA ▶

Bularreko minbizia hizpide Kultur Etxean

Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarteak antolatuta, *Bularreko minbizia goiz detektatzea* izeneko hitzaldia izango da gaur Kultur Etxean, 17:00etan. Hizlaria Donostiako Institutu Onkologikoko Lourdes Ariztiturri doktorea izango da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarain autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

TOLOSA ▶ GIZARTEA



Papergintzako langileen auto karabana

E. Ezeiza ▶ Papergintzako langileek mobilizazioekin jarraitzen dute. Atzo auto karabana egin zuten Tolosaldetik barna, Amezetako Aralar paper fabrikari amaituaz. ELA, LAB, CCOO eta UGT langileen sindikatuek bat egin dute ekimenarekin, eta enpresekiko akordiorik ez dagoenez oraindik, datorren astean ere protestekin jarraituko dute. Hala, ostiralgoizean auto karabana egingo dute Tolosatik abiatuta. Hemendik Hernanira joango dira, eta azkenik, Berastegin, Munsjo-n amaituko dute. i.t.

KIROLAK ▶

Ero-Etxe elkartearen XX. Krosa bihar, herriko kaleetatik

11:30ean abiatuko dira gaztetxoak 3 mailatan banaturik; trafiko neurriak hartu dituzte krosak irauten duen artean



Pasa den urteko Ero-Etxe krosaren une bat. GALTZAUNDI

INIÑO TERRADILLOS

Ero-Etxe elkarteak urtero antolatzen duen krosa izango da bihar Tolosako kaleetatik. Aurtengoan XX. edizioa beteko du ohiko hitzordu bilakatu den lasterketa honek. Ohi bezala, haurrentzako antolatutako proba da, 1993tik 1998 urtera bitartean jaiotakoentzat, hain zuzen. 11:30ean emango diote hasiera lasterketari, San Frantzisko ibiltokian, Fronton kafetegiaren parean. Ibiltokiaren inguruan eta Alde Zaharreko kaleetan zehar ariko dira korrikalariak.

Hiru mailatan lehiatuko dira gaztetxoak. Batetik, infantilak, hau da, 1993. eta 1994. urteetan jaiotakoak. Mutilek bi itzuli luze egin beharko dituzte, 2.800 metro guztira. Neskek, berriz, itzuli motz bat eta luze bat egin beharko dute, 2.000 metro denera. Kimuen mailari dagokionez, hau da, 1995. eta 1996. urteetan jaiotakoak, mutilek itzuli motz bat eta luze bat egin beharko dute, 2.000 metro, eta neskek itzuli luze bat 1.400 metro guztira. Haurren mailan, hau da, 1997. eta 1998. urteetan jaiotakoen kasuan, mutilek bi itzuli motz egin be-

harko dituzte, hau da, 1.200 metro, eta neskek itzuli motz bat, 600 metro.

Trafikoan eragina

Krosa dela eta, 11:00etatik 13:00etara aldaketak izango dira trafikoan. Autobusei dagokionez, Roncalesa Belate ibiltokiko geltokian geldituko da, eta Donostia-Tolosa autobusak zezen-plazan, Nafarroa etorbidean eta Igarondo kalean. Taxiek geralekua Soldadu kalean izango dute, eta ez Zumalakarregi kalean.

Bestalde, krosak 2 ordu iraungo ditu, eta tarteka itxi egingo dute bidea Santa Klarako biribilgunean, Zumalakarregi kalerantz (garajeak izan ezik). Ibarra-Leitzara eta erdialdera joateko, ondorengo egin beharko da: autobidean erdialdea dioen irteera erabilteza gomendatzen da (Usabal-Laskorain Ikastola-Kondeko aldapa). Bestela, hegoa irteera hartzea gomendatzen da, Benta Handian aterata, Araba etorbideko lurrazpiko pasabide berritik. Krosak irauten duen bitartean, Gorosabel kaletik datozenek ondorengo egin beharko dute: Lekuona kaletik Gernikako Arbolara eta bertatik San Estebanera. Handik noranahi jo ahalko dute.

MENDIA ▶

Mendi irteera antolatu du Oargik

Oargi elkarteak irteera antolatu du hilaren 26tik 28ra. Hilaren 26an, Linzako aterpera (Valle de Anso) joango dira, 27an Hiru Erregeen Mahaia (2.444 m.) igoko dute eta 28an, berriz, Atxerito (2.362m). Gailurra jaitxi ondoren Tolosara bueltatuko dira. Oargi mendi elkartearen edo 637 83 03 80 zenbakian eskura daiteke informazio gehiago.

KULTURA ▶

Ipuin kontaketa saioa Haur Liburutegian

Tolosako Haur Liburutegian, ipuin kontaketa saioa antolatu du datorren astelehenean, hilaren 22an. Emanaldia 18:00etan izango da, eta 3 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua dago. Hans Christian Andersen idazleak idatzitako ipuinak izango dira Dardar produkzioak taldearen eskutik.

GIZARTEA ▶

Inaute Balkoien II. Lehiaketa aurten ere abian

Joan den urteko «harrera ona» ikusita, Amaroako auzo elkarteak Inaute Balkoien II. Lehiaketa antolatu du aurtengo Inauterietarako. Dagoeneko epaimahaiko kide izateko konpromisoa hartu dute tolosar ezagun batzuk, eta laster plazaratuko dituzte lehiaketaren arauak eta oinarriak.

GIZARTEA ▶



2.000 kilo baino gehiago bildu dituzte jada. I.T.

Sahararako 7.000 kilo biltzeko erronka

Hilabetearen amaierara arte arroza, dilistak, azukrea, hegaluzea eta konpresak biltzen ari dira Sahararen Aldeko III. Euskal Karabanan. Tolosaldea Sahararekin elkartekoek herritarrek animatu aldera, kartel berezi bat jarri zuten herenegun Tolosako Kultur Etxean biltzen doazen kiloak ikustarazteko. Eskualdeko herri gehienetako supermerkatuetan, Kultur Etxean, ikastetxeetan eta udaletxeetan utzi ahalko dira elikagaiak.

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun!

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA



Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62



San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46



Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74



Korroko, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02



Nafarroa etorb., 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85



Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

Hiru ikastetxeek eta Udalak Eskola Agenda 21 bultzatuko dute

Udalak eskolek egingo duten diagnosiari erantzuna emateko konpromisoa hartu du eta ikasleek ingurunea zaintzekoa



Udaletxeko pleno aretoan bildu ziren, atzo, hitzarmenaren sinaketa egiteko. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Udalak eta herriko hiru ikastetxeek —San Millan Eskola, Pedro Mari Otaño Eskola eta Jesusen Bihotza Ikastola— hitzarmena sinatu zuten atzo Eskola Agenda 21aren inguruan, eta horrekin batera zenbait konpromiso hartu zituzten. Hiru ikastetxeko ikasleek, hondakinaren gaia ardatz hartuta, herria nola ikusten duten jasoko dute eta martxoaren amaieran berriro bilduko dira Udalarekin diagnostikoaren berri emateko. Udalak konpromisoa hartzen du bildutako informazio hori jaso eta erantzuna emateko. Ikasleek neurriak hartuko dituzte ahal duten hondakin gutxiena sortzeko.



Ikasleek bertso bat abestu zuten ekitaldiaren amaieran. I. GARCIA

Udaletxeko pleno aretoan egin zen ekitaldia. Bertan izan ziren Marian Lazkano alkatea, Patxi Puertas San Millan Eskolako zuzendaria, Maria Jesus Zaldúa Pedro Mari Otaño zuzendaria, Kontxi Ormazabal Jesusen Bihotza Ikastolako zuzendaria, zenbait irakasle eta guraso eta, noski, ikasleak ere.

Hitzarmena sinatzeaz gain, haurrek zein konpromiso hartuko dituzten irakurri zuten, papera bi aldeetatik erabiltzea eta txiklerik lurrera ez botatzea, esaterako. Ekitaldia bukatzeko bertso bat abestu zuten hiru ikastetxetatik joandako 40 ikasle inguruk.

Haurren ikuspuntua

Diagnosia egiteko, ikastetxeek Mendi Enara enpresaren aholkularitza izango dute. Ikasleek herria eta ingurunea nola dagoen aztertuko dute, beraien ekarpena eginez. Horrela jabetu ahal izango dira zein egoeretan dagoen herria eta hobeto zaindu ahaliko dute. «Denon artean herria zainduz gero, planeta ere zaintzen ari gara», izan zen ekitaldian zehar egindako hausnarketa bat. Bestea, konpromisoak hartu ondoren, «zailena horiek betetzea dela eta horretan ahalegin handia behar dagoela».

Sinatutako hitzarmenaren arabera, udalek eta mankomunitateek Tokiko Agenda 21 programaren zatiak hartuko dute Eskola Agenda 21. Eskolako partaidetza-foro bat ezarri eta sustatuko dute, udalerriko ingurumena aztertzeko eta ikastetxeen proposamenak jasotzeko eta horiei erantzuna emateko.

Ikastetxeek Eskola Agenda 21 programaren proiektua lantzeko eta, curriculum eta hezkuntza proiektuetan barne hartuta, haren filosofia eta metodologiari jarraituz abiarazteko konpromisoa hartuko dute. Ikastetxeko ingurumen-batzordeak eratu eta proiektuaren arduradunak izendatuko dituzte. Garapen-prozesua bultzatu eta lortutako emaitzak ebaluatuko dituzte.

VILLABONA ▶

Behar-Zanakoek pilota partidak gaur Amasan

Amasako Udal Pilotalekuan Behar-Zana elkarterko pilotariak partidak jokatu dituzte gaur. 15:30ean, eskola kirolaren baitan, eskuz alebina: Villabona A (Aitor Ormazabal, Iñigo Otaegi, Ion Erasun) Tolosako Hirukide B taldeko pilotarien aurka. 16:30ean, Euskal Herriko Ligan, kadeteak eskuz binaka, Behar-Zana (Ilaizki Ordozgoiti, Ander Inza) Irurtzungo taldearen aurka. 17:30ean, Udaberri Txapelketan, lehen mailako afizionatuak eskuz binaka: Lizaso eta Txapartegi Zumarragako Beloki taldeko Rodriguez eta Insaustiren aurka. 18:30ean, joko garbi partida Behar-Zana 2 eta Zubietza 2 taldeen artean.

ALKIZA ▶

Hainbat ikastaro egiteko aukera herrian

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak hainbat ikastaro antolatuta ditu. Kantu ikastaroa, hilaren 26an hasita, laugarren ostiraletan egingo da, Kultur Etxean, 20:00etan. Euskal dantzarena ostegunetan egingo da, 20:00etan, Kultur Etxean. Bestalde, 20 orduko ikastaroak antolatuta dituzte: photoshop, yoga, sukaldaritza eta eskulanak. Ipuin kontalaritzakoa, 6 ordukoa, egiteko aukera ere izango da. Informazio gehiagorako Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoetara jo daiteke edo 943 69 39 30 telefono zenbakira deitu.

VILLABONA ▶

IX. Areto Futbol Torneoko bigarren jardunaldia, gaur

Olaederra kiroldegiko IX. Areto Futbol Torneoaren bigarren jardunaldia jokatu dute gaur lehiari ari diren sei taldeek. Larunbatetan jokatzen diren partidak 14:00etan hasiko dira eta ordubetera besteari ekingo zaio. Gaurko lehenengo partida Itzuli Tabernak eta Egari Tabernak jokatu dute. 15:00etan, Pub Ekaitz eta Steava Bucurestik jokatu dute norgehiagoka. Egunean azken neurketa, 16:00etan, Karhe eta No Somos Nadie taldeek jokatu dute.

hilberria ▶



**Mari Karmen
Elorza Puyadena**

Uhinez uhin,
hitzez hitz,
zure esan goxoak
betiko hegan dabiliz.

Goierriko Hitzako eta Goierritarrako lankideek.

SEGURA, 2007ko urtarrilaren 20a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ERREMONTEA ▶

Eskualdeko pilotariak gaur jokatuko dute

Gaur Huarteko Euskal Jai pilotalekuan erremonteko hainbat partida jokatuko dituzte. Horien artean Aizpuru II.ak Gorrizekin batera jokatu duena Zalakain-Zubizarretaren aurka. Bigarren partidan, ordea, Uterga-Lizaso bikotea Altuna II.a-Iriarterekin lehiatuko dira. Galarretan, berriz, 16:00etatik aurrera bigarren partidan Ezkurra-San Miguel eta Zeberio II.a-Etxaberen aurka ariko dira.

IKAZTEGIETA ▶

Leire Olaberria Munduko Kopako hirugarrenetan

Pistako Munduko Kopako 3. proban ari da Leire Olaberria. Horretarako Los Angelesera —AEB— joan da Eustrak taldearekin. Bertan 50 talde ezberdinetako 250 txirrindulari lehiatuko dira. Lehengo igandean joan zen, probak hobe prestatu ahal izateko. Bizikletak eta materiala beranduago iritsiko zaizkie, eta Leire Olaberriak sailkatzeko balioko duen puntuazio proban parte hartuko du. Aitor Alonsok scratch proba egingo du.



Leire Olaberria Eustrak taldeko kideekin. HITZA

ORENDAIN ▶ GIZARTEA



Kalea baserrian eguneko zentroa eta gazteentzako areto bat egiteko asmoa dute. N. URBIZU

NEREA URBIZU

San Sebastian egunarekin batera iaz Orendaingo Kalea baserria inauguratu zuten. Urte bat igaro da, eta bertan herriko Jose Antonio Gonzalez bizi da.

Udal korporazioko lehendakari den Tomas Plazaolak adierazi zuenez «Diputazioari diru laguntza eskatu zaio baina ezekoa jaso dugu». Izan ere, iaz ikuila aldean eguneko zentroa, zaharren egoitza, edota

JOSE ANTONIO GONZALEZ ▶ BASERRIKO BIZILAGUNA

«Berogailua dauka, sukaldea, logela eta bainugela: ez dut besterik behar»

Jose Antonio Gonzalez (1949) Orendainen bizi da aspaldian, eta Kalea baserrian, duela urte bat baino gehiagotik.

Zer moduz moldatzen zara etxe honetan?

Ondo. Berogailua dauka, sukaldea, logela eta bainugela: ez dut besterik behar.

Beraz, ez duzu ezer faltan botatzen?

Ez, daukadanarekin nahikoa dut.

Noiztik zaude bertan?

Duela urte baino gehiago. Momentuz, hemen geratuko naiz. Horren ordainez alokairua ordaintzen dut, eta bazkaria eta afaria ere ordaintzen ditut.

Zu gaztea zara.

Bai; nire kasa ibil naiteke, baina duela 10 urte jubilatu egin nintzen eta baliogabetasun osoa daukat. Dena dela, ondo moldatzen naiz. Medikuarenera joan behar izaten dut maiz.

Nolakoa da zure egunerokoa?

09:00ak aldera jaikitzen naiz, eta taxiana Alegiara jaisten naiz. Enkarguren bat egin behar badut han egiten dut, eta 10:30ak aldera berriz igotzen naiz herrira. Paseoak egiten ditut herrian zehar egunero. Bazkaltzera ostatura joaten naiz eta ondoren, siesta egiten dut. Arratsaldean kafesnea eta madalenak jaten ditut tabernan. Afaldu ere tabernan egiten dut. Bestetan, kartetan aritzen naiz lagunekin. ◀



N. URBIZU

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa). Pisu 2 logetekin Tolosa erdian.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak. Araba etorbidean, lurre auzoan eta Antonio Maria Labayen kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Lokalkak. Arbol de Gemikan, Foruen kalean eta Laskorain kalean.
Salgai (Irura). Lokala Kale Nagusian.
Salgai (Tolosa). Belardenda, Kale Nagusian, negozioa martxan.
Salgai (Tolosa). Lurre auzoan. Ofizinarako, klaseak emateko, etab. lokalkak. Oso modu onean.
Salgai (Tolosa). Lokalkak Emperadore kalean eta Kale Nagusian.
Salgai - Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Izarran.
Salgai (Tolosa). Garajeak. Leidor azpian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

hilberria ▶

Pakita Atxukarro Uralleta

Atzo hil zen, Donostian, 77 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—



Bere senarra: Martzelino Olaizola; seme-alabak: Juanjo eta Ainara, Lourdes eta Dioni, Antton eta Tanha, Luis eta Koro, Martxel eta Maite; bilobak: Eneritz, Kuluxka, Odei, Aritz, Ainhoa, Garazi, Ibai, Aratz, Punés, Thiény eta Oihan; anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoiitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela gaur Zestoan, arratsaldeko 19:00etan, Andra Mari Jasokundearen parrokia elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ gorpua Azpeltiko beilategian dago
helbidea ▶ Santa Cruz, 3-38

ZESTOAN, 2007ko urtarrilaren 20a

hilberria ▶

Xabier Imaz Artola



*Gozatu duzulako
eguzki zein laino
mila esker bihotzez
Murixkaren partez*

Murixka Dantza Taldea

LEZON, 2007ko urtarrilaren 20a

BERROBI ▶ HEZKUNTZA

Eskola berria inauguratu dute jende ugariz inguratuta

Haurrek eskainitako bertso eta dantzaren ondoren eta ordezkariak eginiko ohiko zinta mozketarekin ofizialki zabaldu ditu atea herriko eskola berriak

MADDI SOROA

Berrobiko eskolak beste behin atea ireki zituen atzo. Oraingoan, ordea, modu berezian egin zuen, denbora luze itxaroten egon ondoren, azkenean iritsi baitzen eskola ofizialki inauguratzeko eguna. Bertan ziren herritarrik gazteenak, eta baita helduenak ere, inork ez baitzuen une garrantzitsu hura galdu nahi. Hainbeste jende eskola barruan ikusita, harriturik zeuden eskolako haurrik txikiak. Urduri, berriz, gaztetxoak, prestaketa guztiak ondo ateratzeko urduritasunaz, alegia.

Guztia prest zegoenean ekin zioten azkenean hainbeste denboran itxaroten egondako inaugurazio ekitaldiari. Bertsoak bota zituzten lehenik haur zaharrenek eta ondoren agurra dantzatu. Agurne Renobales eskolako zuzendariak hartu zuen hitza jarraian eta «itxarroteak merezi» izan duela adierazi eta «guztiei eskerrak» emandakoan, Jon Jauregi Berrobiko alkateari pasa zion hitza.

Jauregik adierazitakoaren arabera, «herri txikiak bizirik jarraitzeko eskola txikiak bultzatu behar dira, hemen zimen duak jarri ditugu eta espero dugu bere fruituak ematea». Ondoren, Pedro Otxoa Hezkuntza sailburuak eskolako kalitatearen harira «eskola herrian txertaturik» dagoela eta «egunerokotasunaren zati» dela adierazi zuen, baita (hurbileko eta banakako heziketa eskaintzen) dela ere. Inaugurazio ekitaldietan ohi den moduan zinta moztu ondoren, eskola barrutik ezagutzeko parada izan zuten bertaraturikoek.

Berrietasunaren edertasuna

Berrobiko eskola ofizialki atzo inauguratu bazuten ere, lehen aldiz iraileko lehen eskola egunean ireki zituen atea. Orduantxe ikusi eta ezagutu zuten eskola bertako ikasle eta irakasleek. Eskola berrira joan aurretiko bidea, ordea, ez da erraza izan askorentzat; sarritan ez baita erraza izaten pazientziatzain zahar jakitea. Lehengo eskola zabaldu zuten zegoen dagoeneko eta kokapena



Eskolako haurrak agurra dantzaten aurrean eskolako zuzendaria eta ordezkariak dituztela. M. SOROA

ere desegokia zen haurrak lasai ibiltzeko. Eskola berrian, ordea, dena da ona eta positiboa, dena da edertasuna.

Egunero eskolara joaten direnei erreparatu gero, guztira bi urtetik hamabi urte bitarteko 45 ikasle biltzen ditu eskola

berriak. Horiekin batera zazpi irakasle aritzen dira eguneroko lanetan. Otsailetik aurrera haurtzaindegi zerbitzua jarriko da martxan.

Eskola berria egiteko lurra Udalak jarri du, finantzaketa, berriz, Eusko Jaurlaritzak egi-

na izan da, guztira, 6.000.000 euroko aurrekontua izan duenak. Eremuari dagokionez, 2.500 m² ditu eskola kokaturik dagoen lursailak eta horietatik 1.000 dagozkie eraikinari. Gai nontzeko 1.500ak jolastokiak betetzen ditu.

AGURNE RENOBALES ▶ ESKOLAKO ZUZENDARIA

«Gurasoak, haurrak eta irakasleok oso gustura gaude emaitzarekin»

Berrobiko eskolako zuzendaria da Agurne Renobales. Eskola berriarekin oso gustura dagoen arren, urduri agertu da inaugurazio ekitaldiari begira.

Zer suposatu du eskola berriak herriarentzat?

Oso aldaketa ona izan da herriarentzat. Lehengo eskola herriaren sarreran zegoenez oso toki desegokia zen haurrekin ibiltzeko, errepide nagusian baitzegoen. Gainera, lehenengo zaharkitua zegoen.

Emaitzarekin gustura?

Oso gustura gaude emaitzarekin, bai irakasleok, bai gurasoak eta baita haurrak ere. Gazte-

txoak irrikitan zeuden eskola berrira etortzeko. Beti gertatzen den moduan, hasieran gauzak falta dira, akatsak daude eta abar, baina gero geroz oso gustura. Eraikin berri batera joaten zaren guztietan bezala, oso gustagarria da dena berrira biztea.

Zel in zuzendari dituzte berriak?

Guztia berria da eta oso argitsuua, berogailua du eta oso toki onean dago gainera, herriari zabaldua baitago. Bi solairu ditu eskolak, lehen solairuan haur hezkuntzako gelak, jangela, biltegiak etabar dau-



M.S.

de. Goran lehen hezkuntzako lau gela eta informatika gela nahiz liburategia daude. Kanpoan, jolastoki handia dago eta estalia gainera, baita kirol jokoetako zelaia ere. Oso pozik gaude, haurrak oso gustura etortzen baitira eskolara. ◀

IBARRA ▶

Erabaki berriak Sendi Ekintzako azken bileran

15 eurotik 20ra igoko da kuota eta elkarteak tabernan arua berriak ezarriko dira

M. SOROA

Sendi Ekintzak buruturiko azken bileran hartutako erabakiak helarazi nahi ditu bileran egotetik izan ezin zuten. Guztira bi erabaki nagusi hartu zituzten. Batetik, kuota-aren igoera, hala, lehen 15 eurokoa bazen, hemendik aurrera 20 euro ordaindu behar dute partaideek. Bigarren erabakiari dagokionez, elkartearen taberna-ko arauen harira, erabaki berriak hartu zituzten bileran.

Bestalde, Sendi Ekintzaren eguna otsailaren 3an ospatuko da eta kantu afaria egingo dute elkarteak tabernan 20:30ean. Barrena asetu ondoren, beraz, norberak aukeraturiko kantuak abesteko aukera izango da. Izen-ematea elkarteak tabernan edo Zubiaurren egin dezakete interesatuek.

LIZARTZA ▶

Inauterietako karrozen prestaketak hastear

ERREDAKZIOA

Lizartzako Inauterietako ate joka dabilta jada, izan ere, aurtengoan otsailaren 3an emango zaie hasiera; egun nagusiak, berriz, otsailaren 9 eta 11 bitartekoak izango dira.

Otsolar dantza taldeak 14 urte daramatza herriko Inauterietako antolatzen eta hala egingo du aurtengoan ere. Horregatik, herritarrei deia zabaldu nahi izan die moztarrok, gurdia edota konpartsak prestatzen hasteko.

Otsolarrek aditzera eramanez, «adina ez dela oztopoa erakutsi dugu», beraz «adin guztietako herritarrek anima daitezela». Bestalde, «aurtengoan ere guztionak» izan behar dutela adierazi du taldeak.

GIZARTEA ▶

Donostiatik Iruñera, lurruna dariola

Plazaola trenak bere lehenengo bidaia elurretan egin zuen, eta atzo bete ziren 93 urte ordutik; 1914. urteko urtarrilaren 19an inauguratu zuten, ospakizun ugariarekin

NAIARA GARZIA

Atzo Plazaola trenak ofizialki inauguratu zela 93 urte egin zituen. 1914ko urtarrilaren 19an abiatu baitzen lehen aldiz. Egun hartatik aurrera eta 40 urtez Donostiatik Iruñera eta Iruñetik Donostiarako bidaia egunero egin zituen, 1953. urteko uholde eta autobusen lehiaren ondorioz bertan behera utzi zuten arte. 40 urte horietan ez zen soilik merkataritzarako eta komunikaziorako bidea izan, trenaren joan-etorriekin batera kulturaren hartu-emanak ere aunitzak izan ziren.


Ofizialki 1914. urtean inauguratu bazuten ere, aurretik Plazaola trenaren —hasiera batean Leitzaran izenarekin ezagutzen zen— ere bazebilen, bere lurrunezko trakzioarekin aurrera eta atzera, poliki, sorreran meatzerako-trena izan baitzen: burnia garraiatzen zuen Plazaolako meatzeetatik Andoainera.

Hala ere, egun esanguratsua hori baino lehen izan zen Plazaola trenak egin zuen bidai xelebrikerik, ofizialki inauguratu baino urtebete lehenago zena-bait teknikari, ingeniari eta langileri sanferminetara joan eta zezenak ikusteko garraio bide egokia iruditu baitzitzaien.

Inauguratu baino egun batzuk lehenago, urtarrilaren 15ean, salneurri-zerrendak eta ordutegiak argitaratu zituzten: mailaren arabera prezioak ere aldatu egiten ziren. 14,30, 10,75 eta 7,10 pezeta, hauek ziren prezioak. Urte haietarako ikaragarri garestia zen. Eta askotan gertatu ohi den bezala, estreinako garaia pasa eta gero prezioek behera egin zuten (%35 jaitsi zituzten).

Inaugurazio eguna

Eta iritsi zen garai hartako garraibide aurreratu eta eroso-entarikoa inauguratzeko eguna: 1914ko urtarrilaren 19a. Aurreneko egun honetan bi tren abiatu ziren aldi berean, bata Iruñetik, bestea Donostiatik, goizeko bederatziak eta laurdenetan. Goizeko hamaiketan bi trenak Uitziko geltokian egin zuten topo. Bertan Iruñeko Elizbarrutiko Artzapezpikua, Frai Jose Lopez Mendoza, zai zegoen trenarekin bidaiatzeko. Ondoren, ohiko diskurtsoak eta gero, bai alde batetik, bai



Plazaola, kea dariola. HITZA



Plazaolak inauguratu zuten egunean bedeinkazioa jaso zuen. HITZA

bestetik etorritako trenak elkartu eta Iruñera abiatu ziren, elurra mara-mara ari zuen nekuko egun hotz hartan. Iruñera 12:45ean iritsi zen Plazaola eta bidaia amaitutakoan otordu

ederra egin zuten bertako Gran Hotelean. Menu berezi bat eskaini zuten, paristar kutsua zuena, dotoretasuna eta luxuaren sinboloa imitatu nahian: Colbert salda, askota-

riko frijituak, mihi-arrain xerrik Florentine erara, eperrak Salmi erara, zainzuriak Gabiche saltsan eta azpizun errea, hau izan zen egun hartako menua. Arratsaldean, 16:30ean,

Donostiarantz abiatu zen bueltan eta 21:15ean iritsi zen Plazaolaren gida ofizialaren arabera, bidaiak hiru ordu eta berrogeita bost minutu behar zituela zioen, baina benetan lau ordutik gora behar izaten zituen bidaia burutzeko, izan ere, gehienera ere 62 km/orduko abiadura hartu baitzezakeen.

Bidaian zehar hauek ziren trenak egiten zituen geldialdiak: Iruñea (hiria), Iruñea (Iotunea), Aitzoain, Saratsa, Irurtzun, Latasa, Lekunberri, Uitz, Leiza, Areso, Plazaola, Amearaun, Oloki, Andoain, Lasarte, Añorga eta Donostia (Amara).

Plazaolaren amaiera

1953. urteko urrian, izugarriko uholdeak izan ziren eta trenbideko hainbat zati kaltetuak suertatu ziren. Guzti honen ondorioz, trenbidea ezin zen erabili eta zerbitzua eten egin zen. Bat bateko erabakia izan bazen ere, eta behin-behinekoa izango zela uste bazuten ere, honen ondoren Plazaola trenaren ez zen berriro martxan jarri. Zerbitzua berriro abian jartzeko zenbait saiakera egin ziren, baina negoziazioek ez zituen fruiturik eman. 1958. urtean onartutako dekretu batek konpainiari trenbidea altxatzeko exijitu zion.

Bitxikeriak

Ezaguna da Plazaola trenaren inaugurazio eguneko ilusioak bultzatuta, Uitziko gizon batek egindakoa, izan ere, Zacarias Astiz jaunak limosna bikainak eman zizkien herriko bertsu guztiei, eskolako neskatilak bazkaltzera gonbidatu zituen eta trenaren herrira iristen zen unerako musika ordaindu zuten.

Baina urteak, joan urteak etorri, Uitziko tunelaren mitoa da Plazaolaren istorioari erabat lotuta dagoena. Esaten zuten, ezkonduen bizimodua hasteko ez zegoen Plazaolan bidaiatzeko baina modu hobetarik. Trenak garaioko tunel luzeenetariko bat zeharkatzen zuten, Uitzikoa, 2.700 metroko luzera zuena eta tuneletik sartzen zenean, mantsa-mantsa joaten zen, orduko 10 kilometroa, eta ezkonberriek, bagoi-ko iluntasuna baliatuz, musurik luzeenak ematen zizkioten elkarri.

LEHENENGO BIDAIA

Otordu ederra egin zuten Gran Hotelean. Menu berezi bat eskaini zuten, paristar kutsua zuena.

EZKONBERRIAK

Garai hartan, ezkonduen bizimodua hasteko ez zegoen Plazaolan bidaiatzeko baina modu hobetarik

Kontrabandoa, eguneroko ogia

Ez ziren urte errazak. Eskasia herrietako txoko guztietara iristen zen urte haietan, janari kontrabandoa eguneroko zerbitzua zen Plazaolan. Ogia, patatak, babarrunak... oinarriko elikagaiak, alegia, trenari esker iristen ziren herrietara. Guardia zibiliak zuhur ibiltzen ziren, bidaiariak zeramatzaten elikagaiak konfiskatzen baitzituzten askotan, baina hau ekiditeko modurik bazegoen, geltokietako langileen arteko el-

kartasanak jendeari asko lagundu baitziren. Geltoki buruek Guardia Zibileko instruktoreren bat ikusten zutenean, beste geltokietara abisua pasatzen zuten bidaiariak poltsak ezkutatu edo haietaz libra zitezen.

Garai hartan, beharrak bultzatuta, *kontrabandisten berrokia* modan jarri zen: hiru laurdeneko *cheviot* lodiko berrokia, ardi-larruzko lepo eta raglan mahukaduna. Barneal-

dean ehun sendoko sei sakel zituen eta babarrunak eta dilistak bezalako beste hainbat jaki ezkutuan eramateko jostura bikoitz sendotua izaten zuten.

Diotenez, emakume batek, Guardia Zibila geltokian zegoela jakitean, nahigabe, bere fardelez libratu zenean, manta batean inguratuta zeramakien haurra bota zuen. Trena oso poliki zihoanez, haurrak ez zuten kalterik izan. ◀

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berrobi. Eskulanean ikastaroa astelehenetan izango da 10:00etatik 12:00etara, otsailaren 5ean hasi eta abenduaren 10a arte. Ikastaroaren prezioa, berriz, 103 eurokoa izango da. Izen-ematea 943 68 32 94 zenbakian egin behar da hilaren 23a baino lehen.
Ibarra. Euskara Zerbitzuak 2007ko egutegiari argitaratu ditu nahi duen orok eskuratu ditzan. Interesatuak udaletxean eta Euskara Zerbitzuan jaso ditzakete.
Tolosa. Bomberenean, Peachy Joke eta Cohen taldeen kontzertuak izango dira, 22:30ean.
Vilabona. Aizkardi mendi elkarteak Artzamendira (Lapurdi) antolatuta du irteera bihar. Izen-ematea, elkartearen edo 943 694458 telefonon.

ZINEMA

Tolosa. *Arthur y los minimois* filma ikusgai Leidorren 17:00etan; eta 19:30ean eta 20:00etan *Holiday* filma.

ERAKUSKETAK

Tolosa. *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* horma-irudien erakusketa dago ikusgai Aranburun otsailaren 24ra arte.
Tolosa. Maria Jose Rekalderen erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era joan ahal izango da ikustera.
Alegia. Isabel Mujikaren margolanak jubilatuen tabernan izango dira ikusgai, otsailaren 12ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 30. 943 65 10 40.
 Lekunberri. Mendia, B. Aralar 25. 112. (Leitza eta Aresoko biztanleentzat).

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitza* hegana.

Goiko irrattia (107.0 FM)
 12:00. *korrera*.

▶ HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Ederra zurekin bizitakoa»

AMEZKETA ▶ Guadalupe Altuna irakasleari omenaldia egin zioten San Sebastian bezperan, danborrada, lore, dantza eta guzti

NEREA URBIZU

Ikasleen danbor soinuak Guadalupe Altuna irakasleari egindako omenaldi be-roarekin nahastu ziren Txindokipean.
 Amezketa Zumadi eskola-koek Sansebastianeko danborrada egin zuten atzo. Bide batez, Guadalupe Altuna asteazkenean jubilatuko den irakasleari omenaldi xume bat egin zioten. Hilaren 25ean, berriz, bere urtebetetzea da: 65 urte egingo ditu. Guraso elkar-teak eta irakasleek egin zioten ahaztuko ez duen omenaldi-txoa.
 Ikasleek danborrada egin zuten, eta ondoren zuzendari-ari paper txukun bat erakutsi eta «Guadalupe» aipatzen zuela ikusita, jubilatuko den irakasleari eskainitako idatzi hungigarria irakurri zuten. Ondoren, Zumaiako talasoterapiarako sarrera eta umetxoek emandako lore sorta eder bat jaso zituen. Ondoren, egurrezko egitura eder bat jaso zuen. Amezketa irakasle 1973. urtetik hasi zela gogoratzen zenez, Aurrekua ere dantzatu zioten ikasleek. Besterik ez: «Zorionak, andereño!»




Arratsaldeko lehenengo ekitaldia Sansebastianetako danborrada izan zen. N. URBIZU



Bere umetxoek lore sorta bat eman zioten. Agustin Amiano zuzendariak idatzia irakurri zuen. N. U.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Amaia. Danbor hotsekin iritsi al zaizu urtebetetzea? 24 muxu ebekoan partetik.
URTE ASKOAN
 Xuban Otero Garmendia. Gaur 4 urte. Zorionak. Maddi, aita eta amaren partetik.
URTE ASKOAN
 Harriet Martin Kortajarena (Zizurkil). Gaur 3 urte. Muxu handi 1 familiarren partetik.
URTE ASKOAN
 Izaskun Sarasola (Ibarra). Zorionak izebabo, Aimar, Iraitz eta Ugaizten partetik.
URTE ASKOAN
 Ioritza eta Iraitz (Tolosa). 3 urte eta urtebete. Gurasoek asko maite zaituzte.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa